

# Murga Jauregia Lorategi Didaktikoa

**Murga jauregia** XVII. mendeko eraikina da, oinplano laukizuzenekoa. Hasieran dorretxea zen baina mendeetan zehar hainbat aldiz eraberritu ondoren, jauregi bihurtuta geratu da. Hiru solairuko eraikin horretan Salcedo eta Ayala leinuen armarrak nabarmentzen da sarrera nagusiaren gainean. Armarrak, goian, pertsona baten burua du eta alboetan lehoi bi zutik.

Murga jauregia eraberritu dute eta gaur egun Zallako Udaletxearen egoitza da.

Jauregia Mimetiz auzoan dago, udalerriko hirigunean bertan, zuhaitzez beteriko partzela batean. Hektarea bat inguruko partzela horretan 5 kontinenteetako 30 zuhaitz espezie baino gehiago daude eta horietako batzuek ez dute parekorik munduan. Espezie horiei esker, bertako hegazti eta narrasti batzuk bizi dira han.

## MURGA JAUREGIA LORATEGI DIDAKTIKOA

- 1 Ezki arrunta:** Zuhaitz europarra, hosto erorkorrekoa. Gehienez, 40 m-raino hazi ahal da.
- 2 Haritz eskarlata:** Ipar Amerika. Gehienez, 25 m-ko altuera edo zabalera izan dezake.
- 3 Izei gorria:** Europa. Gehienez, 50 m-raino hazi ahal da.
- 4 Haritz kankuduna:** Zuhaitz europarra, hosto iraunkorrekoa, Kantauri isurialdeko zuhaitz arrunta.
- 5 Indigaztainondoa:** Asia/Europa. Gehienez, 20 m-ko altuera izan dezake eta bere fruitua ez da jaten.
- 6 Himalaiako zedroa:** Asiako zuhaitza, garaiera handikoa (50 m).
- 7 Sekuoia gorria:** Ipar Amerikakoa. 3000 urtez bizi daiteke. Munduko zuhaitzik altuenak espezie horietakoak dira.
- 8 Ginkoa:** Asia. Espezie hau duela 200 miloi urtetik bizi da. Gehienez, 40 m-ko altuera izan dezake.
- 9 Kalamu palmondoa:** Asia. Hotza hoberen jasaten duen palmondo-etako bat da.
- 10 Cordilin landarea:** Ozeania. Zeelanda Berriko zuhaitz endemikoa da. Hostoak ezpata formakoak dira.
- 11 Datil palmondoa:** Afrika/Asia. Palmondo arrunta da.
- 12 Sasiakazia:** AEB. Hosto iraunkorrekoko zuhaitza, adaburu zabala eta gehienez, 25 m-koa izan daiteke. Sustriatetik kimuak sor daitezke oso-oso urrun.
- 13 Xarma:** Europa/Asia. Hosto erorkorrekoko zuhaixka, gehienez 25 m-koa. Pagoaren oso-oso antzekoa denez, nahastu ahal dira.
- 14 Likidanbarra:** AEBetako hegoaldea. Hostoak astigarraren formakoak dira eta udazkenenean gorriak izaten dira.
- 15 Indigaztainondo gorria:** Asia. Indigaztainondoaren hibrido bat da eta lore gorriak ditu.
- 16 Sasiakazia arrosa:** Ipar Amerika. Lursail guztietara oso ondo egokitzen da. Arrosa koloreko lore-sortak izaten ditu zintzilik.
- 17 Magnolia lorandia:** AEB. Zuhaitz sendoa da, urte osoan berde kolorekoa eta 25m-raino hazi ahal da.
- 18 Gerezi erramua:** Europa. Zuhaitz txikia. Fruitu beltz eta biribilak ematen ditu. Fruituak ez dira jaten.
- 19 Arizonako nekosta:** Gehienez 30 m-raino hazi ahal da. Adaburua irekia izaten da eta urteak aurrera joan ahala, barreiatu egiten da.
- 20 Astigar zorrotza:** bertakoa. Zuhaitz basatia Pirinioetan eta Kantauriko isurialdean bakarrik hazten da.
- 21 Hagina:** Bertakoa. Oso zuhaixka pozoitsua da. Gure lorategiko zaharrena da, 200 urte baino gehiago omen dauzka.
- 22 Gerezi aranondoa:** Asia. Purpura koloreko zuhaixka da, hosto erorkorrekoa.

**23 Arbustu japoniarra:** Asia. Zuhaitz txiki eta berdea. Jatorria Txinan eta Korean du.

**24 Atlaseko zedroa:** Afrikako iparraldea. Zuhaitz handia da (45-50 m) eta 1.000 urtez bizi ahal da.

**25 Platano arrunta:** Europa/Asia. Zuhaitz arrunta mundu osoko leku epeletako parkeetan.

**26 Urkia:** Bertakoa. Zuhaitz txikia da. Lur hezeetan ondo hazten da eta azal zurixkagatik erraz identifikatzen da.

**27 Izeia:** Europa. Kono formako zuhaitza da eta 30 m-ko altuera izan dezake.

**28 Zume negartia:** Asia. Hosto erorkorrekoko zuhaitza. Adar luze eta malguak ia-ia lurreraino iristen dira.

**29 Konstantinoplako Akazia:** Zuhaitz txikia, oso estimatua bere lore ikusgarriengatik.

**30 Gorostia:** Bertakoa. Berdea da urte osoan. Gabonetako apaingarri gisa erabiltzen da.

**31 Artea:** Bertakoa. Altuera ia-ia inoiz ez da 20 m-tik gorakoa izaten. Berdea urte osoan zehar.

**32 Pagoa:** Bertakoa. Biribila da eta hostoak neguan erortzen dira.

**33 Orratz haritza:** Ipar Amerika. Haritz eskarlataren antz handia du. Orrariengingalak 'U' forma du. Neguan hostoak galtzen ditu.



"Zallatur" aplikazio turistikoa zure eskura dago.

